ZINEMATEKA

# Jean-Pierre Melville

## Gaua, katuak eta jazza

## La noche, los gatos y el jazz



Jean-Pierre Melville

2021 URRIAREN 6TIK ABENDUAREN 16RA
DEL 6 DE OCTUBRE AL 16 DE DICIEMBRE

Bilbao

Laguntzailea / Colabora:
INSTITUT FRANÇAIS BILBAO

gizartea eta kultura garaikidea
sociedad y cultura contemporánea

AZKUNA ZENTROA ALHÓNDIGA BILBAO

# Jean-Pierre Melville. Gaua, katuak eta jazza

Pier Paolo Pasoliniren eta Luis García Berlangaren zikloen ostean, Azkuna Zentroko Zinematekak Europako zinemagintzan ezinbesteko zuzendaria izandako Jean-Pierre Melvilleren atzerabegirakoarekin itxiko du 2021eko programazioa.

Ziklo honetan programatutako hamar filmek zinemagilearen ibilbidea osatuko dute; Nouvelle Vague-ren sortzaileetako bat izan zen, eta Frantziako zinema polarraren eta Frantziako erresistentziaren adierazgarri nagusia. Carlos Aguilar Gutiérrez historialari zinematografikoak deskribatu zuenez, “misantropoa eta harroa, mitomanoa eta obsesiboa, muturrerainoko independentea, jazzaren, katuen eta gauaren maitalea”, hari buruz esan ohi da film “beltzak” egin zituzten Europako errealizadore guztien artean amerikarrena izan zela. Horregatik, haren ondarea kultuko eta erreferentziako filmografia da zinema-zuzendari garaikide asko eta askorentzat.

Zinemagilearen obra bereziak ospetsu bihurtu zituen Alain Delon, Lino Ventura eta arestian hildako Jean-Paul Belmondo bezalako aktoreak, eta erreferente bilakatu zituen, bereziki Nouvelle Vague-renak eta oro har Frantziako zinemarenak.

Zikloa hasteko, Melville ikus-entzunezkoen ekoizpenean murgilarazi zuen *24 heures dans la vie d´un clown* (1946) dokumental laburra proiektatuko da, bai eta Jean Marcel Bruller-en Vercors-en eleberrian oinarritutako *Le Silence de la mer* (1949) film luzea ere. Haren maisulantzat jotako *Bob le flambeur* (1956) lana izango da hurrengoa. “Parisi idatzitako maitasun gutuna”, Melvillek berak esan zuenez, zinema polarraren ernamuina izan zena. New Yorken kokatutako *Deux hommes dans Manhattan* (1959) filmarekin estreinatu zen polizia-zineman, Melville bera protagonista zela.

Nouvelle Vague-ko guraso espiritualetako bat bihurturik, *Léon Morin, prêtre* (1961) zuzendu zuen, Emmanuelle Riva eta Jean Paul Belmondo bezalako lehen mailako aktore frantsesekin; *Le doulos* (1962) egitean, zinema polarraren adierazle nagusi bilakatu zen, gangsterren 40ko hamarkadako zinema beltzaren frantziar etorkian.

Melvillek bere hiru film onenak zuzendu zituen gero, bat-batean hil baino lehen: *Le samuraï* (1967), *Le cercle rouge* (1970) eta *Un flic* (1972) trilogiarekin, Alain Delon protagonista zela, zinema beltzaren gailurrera igo zen zuzendari frantziarra.

# Jean-Pierre Melville. La noche, los gatos y el jazz

Tras los ciclos de Paolo Pasolini y Luis García Berlanga, la Zinemateka de Azkuna Zentroa cierra la programación de 2021 con una retrospectiva de Jean-Pierre Melville, otro de los directores imprescindibles del cine europeo.

Las diez películas programadas en este ciclo recorren la trayectoria cinematográfica del cineasta, uno de los fundadores de la Nouvelle Vague y máximo exponente del cine polar francés y de la resistencia francesa. «Misántropo y orgulloso, mitómano y obsesivo, independiente hasta la radicalidad, amante del jazz, los gatos y la noche», tal y como lo describe el historiador cinematográfico Carlos Aguilar Gutiérrez, de Melville se suele decir que ha sido el realizador europeo más americano de cuantos se dedicaron a la realización de películas 'negras'. Por ello, su legado es una filmografía de culto y referencia para muchas y muchos de los directores de cine contemporáneos.

La singular obra del cineasta consagró la carrera de actores como Alain Delon, Lino Ventura o Jean-Paul Belmondo, recientemente fallecido, convirtiéndoles en referentes de la Nouvelle Vague en particular y del cine francés en general.

El ciclo arranca con la proyección del corto documental, *24 heures dans la vie d'un clown* (1946), con el que Melville se adentró en la producción audiovisual; y el largometraje *Le silence de la mer* (1949), ópera prima basada en la novela de Jean Marcel Bruller (Vercors). Continúa con *Bob le flambeur* (1956), considerada una de sus obras maestras. Una «carta de amor a París», en palabras del propio Melville, y germen del cine polar. Con *Deux hommes dans Manhattan* (1959), protagonizada por el propio Melville y ambientada en Nueva York, debuta en el cine policiaco.

Convertido en uno de los padres espirituales de la Nouvelle Vague dirige *Léon Morin, prêtre* (1961), con actores franceses de primera fila como Enmanuelle Riva y Jean Paul Belmondo; y con *Le doulos* (1962) se consagra como máximo exponente del cine polar, derivación francesa del cine negro de gansters de los años 40.

Melville dirige sus tres mejores largometrajes antes de morir de forma repentina: *Le samuraï* (1967), *Le cercle rouge* (1970) y *Un flic* (1972), una trilogía, protagonizada por Alain Delon, que elevó a la cima del cine negro al director francés.

| EGUNA / DÍA | ORDUA / HORA | FILMA / PELÍCULA |
| --- | --- | --- |
| **6** URRIA OCTUBRE<br>ASTEAZKENA / MIÉRCOLES | 17:00 | **24 HEURES DE LA VIE D'UN CLOWN (1946)**<br>Z/D: Jean-Pierre Melville \| 18'. FR<br>**LE SILENCE DE LA MER (1949)**<br>Z/D: Jean-Pierre Melville \| 83'. FR |
| **7** URRIA OCTUBRE<br>OSTEGUNA / JUEVES | 19:30 | **24 HEURES DE LA VIE D'UN CLOWN (1946)**<br>Z/D: Jean-Pierre Melville \| 18'. FR<br>**LE SILENCE DE LA MER (1949)**<br>Z/D: Jean-Pierre Melville \| 83'. FR |
| **13** URRIA OCTUBRE<br>ASTEAZKENA / MIÉRCOLES | 17:00 | **BOB LE FLAMBEUR (1956)**<br>Z/D: Jean-Pierre Melville \| 101'. FR |
| **14** URRIA OCTUBRE<br>OSTEGUNA / JUEVES | 19:30 | **BOB LE FLAMBEUR (1956)**<br>Z/D: Jean-Pierre Melville \| 101'. FR |
| **27** URRIA OCTUBRE<br>ASTEAZKENA / MIÉRCOLES | 17:00 | **DEUX HOMMES DANS MANHATTAN (1959)**<br>Z/D: Jean-Pierre Melville \| 84'. FR |
| **28** URRIA OCTUBRE<br>OSTEGUNA / JUEVES | 19:30 | **DEUX HOMMES DANS MANHATTAN (1959)**<br>Z/D: Jean-Pierre Melville \| 84'. FR |
| **3** AZAROA NOVIEMBRE<br>ASTEAZKENA / MIÉRCOLES | 17:00 | **LÉON MORIN, PRÊTRE (1961)**<br>Z/D: Jean-Pierre Melville \| 117'. FR |
| **4** AZAROA NOVIEMBRE<br>OSTEGUNA / JUEVES | 19:30 | **LÉON MORIN, PRÊTRE (1961)**<br>Z/D: Jean-Pierre Melville \| 117'. FR |
| **10** AZAROA NOVIEMBRE<br>ASTEAZKENA / MIÉRCOLES | 17:00 | **LE DOULOS (1962)**<br>Z/D: Jean-Pierre Melville \| 108'. FR |
| **11** AZAROA NOVIEMBRE<br>OSTEGUNA / JUEVES | 19:30 | **LE DOULOS (1962)**<br>Z/D: Jean-Pierre Melville \| 108'. FR |
| **24** AZAROA NOVIEMBRE<br>ASTEAZKENA / MIÉRCOLES | 17:00 | **L'ARMÉE DES OMBRES (1969)**<br>Z/D: Jean-Pierre Melville \| 139'. FR |
| **25** AZAROA NOVIEMBRE<br>OSTEGUNA / JUEVES | 19:30 | **L'ARMÉE DES OMBRES (1969)**<br>Z/D: Jean-Pierre Melville \| 139'. FR |

| EGUNA / DÍA | ORDUA / HORA | FILMA / PELÍCULA |
|---|---|---|
| **1** ABENDUA DICIEMBRE<br>ASTEAZKENA / MIÉRCOLES | 17:00 | LE CERCLE ROUGE (1970)<br>**Z/D: Jean-Pierre Melville** \| 140'. FR |
| **2** ABENDUA DICIEMBRE<br>OSTEGUNA / JUEVES | 19:30 | LE CERCLE ROUGE (1970)<br>**Z/D: Jean-Pierre Melville** \| 140'. FR |
| **15** ABENDUA DICIEMBRE<br>ASTEAZKENA / MIÉRCOLES | 17:00 | UN FLIC (1972)<br>**Z/D: Jean-Pierre Melville** \| 96'. FR |
| **16** ABENDUA DICIEMBRE<br>OSTEGUNA / JUEVES | 19:30 | UN FLIC (1972)<br>**Z/D: Jean-Pierre Melville** \| 96'. FR |

Film guztiak jatorrizko bertsioan proiektatuko dira (JB, Gaztelania)
Sarrerak: Golem Alhóndiga Zinemako txarteldegia eta golem.es

Todas las proyecciones son en Versión Original (VO, Castellano)
Entradas: Taquillas de Cines Golem Alhóndiga y en golem.es

**5€ [4€ Az Txartelarekin / Con Tarjeta Az]**
**+ info: azkunazentroa.eus**

## ETA GAINERA MEDIATEKA BBK-N...

Zinematekaren programazioa Mediateka BBK-ra zabaldu da, Jean-Pierre Melvilleren lanari buruzko filmak eta liburuak kontsultatu eta maileguan kontsultatu eta eskatu ahal izateko.

Informazio gehiago 14. orrialdean.

## Y ADEMÁS EN LA MEDIATEKA BBK...

La programación de la Zinemateka se expande a la Mediateka BBK donde se pueden consultar y solicitar prestado películas y libros en torno a la obra de Jean-Pierre Melville.

Más información en la página 14.

**Puedes descargar este folleto en azkunazentroa.eus / Liburuxka hau azkunazentroa.eus helbidean deskarga dezakezu.**

# 24 HEURES DE LA VIE D'UN CLOWN (1946) + LE SILENCE DE LA MER (1949)

**Z/D: Jean-Pierre Melville**



**URRIAK 6, ASTEAZKENA**
6 DE OCTUBRE, MIÉRCOLES
**17:00**

**URRIAK 7, OSTEGUNA**
7 DE OCTUBRE, JUEVES
**19:30**

## 24 HEURES DE LA VIE D'UN CLOWN (1946)

Beby pailazo profesionalaren bizitzako egun bati buruzko kontakizuna: haren oroitzapenak, lana eta eguneroko bizitza.

---

Relato sobre un día en la vida de Beby, un payaso profesional: sus recuerdos, su trabajo y su vida cotidiana.

18'. Frantzia / Francia
**G:** Jean-Pierre Melville
**A/R:** Beby, Maïss.



## LE SILENCE DE LA MER (1949)

Bigarren Mundu Gerra (1939-1945). Alemaniar tropek Frantzia okupatu duten garaian, agure batek eta bere ilobak ofizial nazi adeitsu batekin partekatu beharko dute ostatua, eta harekin bizi.

---

Segunda Guerra Mundial (1939-1945). Durante la ocupación de Francia por las tropas alemanas, un anciano y su sobrina deben compartir alojamiento y convivir con un afable oficial nazi.

83'. Frantzia / Francia
**G:** Jean-Pierre Melville
**A/R:** Howard Vernon, Jean-Marie Robain, Nicole Stephane, Georges Patrix, Ami Aaroe, Denis Sadier.

# BOB LE FLAMBEUR (1956)

**Z/D: Jean-Pierre Melville**



**URRIAK 13, ASTEAZKENA**
13 DE OCTUBRE, MIÉRCOLES
**17:00**

**URRIAK 14, OSTEGUNA**
14 DE OCTUBRE, JUEVES
**19:30**

Gangster zaharra da Bob, diru guztia galtzeko zorian dagoen jokalari amorratua. Halatan, lagunen aholkuei jaramonik egin gabe, Dauvilleko kasinoa lapurtzea erabakiko du. Ganoraz antolatu du guztia, baina poliziak badaki lapurretaren berri.

---

Bob es un viejo gánster y un jugador empedernido que está casi a punto de arruinarse. Entonces, a pesar de las advertencias de sus amigos, decide atracar el casino de Dauville. Todo está planeado a la perfección, pero la policía está informada del atraco.

101'. Frantzia / Francia
**G:** Jean-Pierre Melville
**A/R:** Roger Duchesne, Isabelle Corey, Daniel Cauchy, Guy Decomble, André Garret, Claude Cerval, Simone Paris, Howard Vernon.

# DEUX HOMMES DANS MANHATTAN (1959)

**Z/D: Jean-Pierre Melville**



**URRIAK 27, ASTEAZKENA**
27 DE OCTUBRE, MIÉRCOLES
**17:00**

**URRIAK 28, OSTEGUNA**
28 DE OCTUBRE, JUEVES
**19:30**

NBEk New Yorken duen egoitzan lan egiten duen diplomazialari frantziar bat desagertu da era sinesgaitzean. Moreau (Jean-Pierre Melville) eta Delmas (Pierre Grasset) kazetari frantsesak New Yorkera joango dira, non ote den edo hiria uztera behartu zezaketen arrazoi misteriotsuak ezagutzeko.

---

Un diplomático francés que trabaja en la sede de la ONU en Nueva York desaparece inexplicablemente. Con el fin de hallar alguna pista sobre su paradero o sobre las misteriosas razones que pudieron obligarlo a abandonar la ciudad, los periodistas franceses Moreau (Jean-Pierre Melville) y Delmas (Pierre Grasset) se trasladan a Nueva York.

84'. Frantzia / Francia
**G:** Jean-Pierre Melville
**A/R:** Jean-Pierre Melville, Pierre Grasset, Christiane Eudes, Paula Dehelly, Ginger Hall, Colette Fleury, Jean Darcante, Michèle Bailly.

# LÉON MORIN, PRÊTRE (1961)

**Z/D: Jean-Pierre Melville**



**AZAROAK 3, ASTEAZKENA**
3 DE NOVIEMBRE, MIÉRCOLES
**17:00**

**AZAROAK 4, OSTEGUNA**
4 DE NOVIEMBRE, JUEVES
**19:30**

Bigarren Mundu Gerra (1939-1945). Frantziako hiri txiki batean bizi da Barny, posta zerbitzuan lan egiten duen alargun gaztea. Hark eta alabak gerrak, errazionamenduak, merkatu beltzak eta sarekadek eragindako bizimodu latza jasaten dute. Aita judua duen alaba deportatu ez dezaten, landa-eremura bidaliko du. Baina, etsipenak jota, aitorlekuan bilatuko du kontsolamendua, ateoa dela adierazita barrua hustuz.

Segunda Guerra Mundial (1939-1945). En una pequeña ciudad francesa vive Barny, una joven viuda que trabaja en Correos. Ella y su hija sufren los rigores de la guerra, el racionamiento, el mercado negro y las redadas. Para evitar la deportación de la niña, hija de padre judío, la envía al campo. Pero, movida por la desesperación, busca consuelo en el confesonario y se desahoga declarándose atea.

117'. Frantzia / Francia
**G:** Jean-Pierre Melville
**A/R:** Jean-Paul Belmondo, Emmanuelle Riva, Iréne Tunc, Nicole Mirel, Gisèle Grimm, Marco Behar, Monique Bertho, Gerard Buhr, Howard Vernon.

# LE DOULOS (1962)

**Z/D: Jean-Pierre Melville**



**AZAROAK 10, ASTEAZKENA**
10 DE NOVIEMBRE, MIÉRCOLES
**17:00**

**AZAROAK 11, OSTEGUNA**
11 DE NOVIEMBRE, JUEVES
**19:30**

Espetxetik irten ondoren, Maurice Faugelek bere lagun Gilbert Varnove hilko du. Ondoren, lapurreta bat prestatzen ibiliko da, eta horretarako poliziaren isil-mandataria izan daitekeen Silienek (Belmondo) emango dizkion tresnak beharko ditu. Lapurreta oker irtengo da, eta Mauricek, Silienek traizio egin diola susmatuta, harekin kontuak argitzea erabakiko du.

Tras salir de la cárcel, Maurice Faugel asesina a su amigo Gilbert Varnove. A continuación prepara un atraco para el que necesita una serie de herramientas que le proporcionará Silien (Belmondo), un individuo sospechoso de ser confidente de la policia. El robo sale mal, y Maurice, que sospecha que Silien lo ha traicionado, decide ajustar cuentas con él.

108'. Frantzia / Francia
**G:** Jean-Pierre Melville
**A/R:** Jean-Paul Belmondo, Serge Reggiani, Jean Desailly, Michel Piccoli, René Lefèvre, Carl Studer, Monique Hennessy, Marcel Cuvelier, Philippe Nahon.

# L'ARMÉE DES OMBRES (1969)

**Z/D: Jean-Pierre Melville**



**AZAROAK 24, ASTEAZKENA**
24 DE NOVIEMBRE, MIÉRCOLES
**17:00**

**AZAROAK 25, OSTEGUNA**
25 DE NOVIEMBRE, JUEVES
**19:30**

Philippe Gerbier (Lino Ventura) ingeniari zibila da, ahalegin betean Frantziako erresistentzia adoretsuaren alde saiatu dena. Baina iritsiko da polizia kolaborazionistak harrapatuko duen eguna, eta kontzentrazio-esparru batean atxikiko dute, arretaz zainduta. Lekualdaketa bat baliatuta, ihes egitea lortuko du, azkar batean modua bilatuta. Une horretatik aurrera, haren testigantzaz biziko dugu erresistentziaren egunerokoa eta inbaditzaile ahaltsuaren aurreko zailtasunak.

---

Philippe Gerbier (Lino Ventura) es un ingeniero civil que ha entregado todos sus esfuerzos a la valerosa resistencia francesa, de la que es uno de sus máximos responsables. Pero llega el día en que la policía colaboracionista le captura, siendo retenido en un campo de concentración bajo atenta vigilancia. Tras un traslado logrará escapar improvisando una fuga relámpago. A partir de ese momento viviremos con su testimonio el día a día de la resistencia y sus dificultades ante el poderoso invasor.

139'. Frantzia / Francia
**G:** Jean-Pierre Melville
**A/R:** Lino Ventura, Simone Signoret, Paul Meurisse, Jean-Pierre Cassel, Paul Crauchet, Serge Reggiani, Claude Mann, Christian Barbier.

# LE CERCLE ROUGE (1970)

**Z/D: Jean-Pierre Melville**



**ABENDUAK 1, ASTEAZKENA**
1 DE DICIEMBRE, MIÉRCOLES
**17:00**

**ABENDUAK 2, OSTEGUNA**
2 DE DICIEMBRE, JUEVES
**19:30**

Frantziako espetxe batean zigorra beteta Corey aske irten den bitartean, Mattei komisario beldurgarriak zaindutako Vogel kriminalak ihes egingo du bidaian doan trenetik. Bazkide ohi bati lapurreta egin ondoren, Coreyk Vogelekin egingo du topo, eta bitxiak lapurtzeko taldea osatzea proposatuko dio.

---

Mientras Corey, sale de prisión tras cumplir condena en una cárcel francesa, Vogel, un criminal custodiado por el temible comisario Mattei, escapa del tren en el que viajan. Después de robar a un antiguo socio, Corey se encuentra con Vogel y le propone formar equipo para realizar un meticuloso robo de joyas.

140'. Frantzia / Francia
**G:** Jean-Pierre Melville
**A/R:** Alain Delon, Bourvil, Gian Maria Volonté, Yves Montand, François Périer, André Eycan, Paul Crauchet, Paul Amiot, René Berthier, Pierre Collet, Jean Champion, Yvan Chiffre, Yves Arcanel.

# UN FLIC (1972)

**Z/D: Jean-Pierre Melville**



**ABENDUAK 15, ASTEAZKENA**
15 DE DICIEMBRE, MIÉRCOLES
**17:00**

**ABENDUAK 16, OSTEGUNA**
16 DE DICIEMBRE, JUEVES
**19:30**

Oinordeko aberats batek banku batean dauzkan funtsak lapurtu ditu lapur talde batek. Baina, lapurreta egin bitartean, lapurretako bat zaurituko da. Taldeko buruak Colemane komisarioari egin beharko dio aurre, bere lagunik onenetako bat denari.

---

Un grupo de ladrones roba los fondos que una rica heredera tiene depositados en un banco. Pero, durante el atraco, uno de ellos resulta herido. El cabecilla de la banda debe enfrentarse al comisario Colemane, que es uno de sus mejores amigos.

96'. Frantzia / Francia
**G:** Jean-Pierre Melville
**A/R:** Alain Delon, Richard Crenna, Catherine Deneuve, Riccardo Cucciolla, Michael Conrad, Paul Crauchet, Simone Valère, André Pousse, Jean Desailly.

Zinematekaren programazioa Mediateka BBK-ra zabaldu da, Jean-Pierre Melvilleren lanari buruzko filmak eta liburuak kontsultatu eta maileguan kontsultatu eta eskatu ahal izateko.

La programación de la Zinemateka se expande a la Mediateka BBK donde se pueden consultar y solicitar prestado películas y libros en torno a la obra de Jean-Pierre Melville.

## FILMOGRAFIA / FILMOGRAFÍA

### LES ENFANTS TERRIBLES (1950)

**Z/D: Jean-Pierre Melville**

Bi anaia nerabek obsesio osasungaitz bat dute bata bestearengatik, eta mundu pribatu bat sortu dute partekatzen duten gela desordenatuan. Kanpoko munduaren intrusioak egoera dramatiko batera eramango ditu.

Dos hermanos adolescentes, que alimentan una insana obsesión el uno por el otro, crean un mundo privado en la desordenada habitación que comparten. La intrusión del mundo exterior los llevará a una dramática situación.

105'. Frantzia / Francia
**G:** Jean-Pierre Melville
**A/R:** Nicole Stephane, Edouard Dermithe, Renée Cosima, Jacques Bernard, Malvyn Martin, Maria Cyliakus, Jean-Marie Robain, Maurice Revel

### DEUX HOMMES DANS MANHATTAN (1959)

**Z/D: Jean-Pierre Melville**

Nazio Batuen Erakundearen New Yorkeko egoitzan lan egiten duen diplomatiko frantses bat modu ulergaitzean desagertuko da. Moreau (Jean-Pierre Melville) eta Delmas (Pierre Grasset) kazetariak New York aldera joango dira: pistaren bat nahiko dute, diplomatikoak zer azken izan ote duen edo zer dela-eta utzi ote zuen hiria.

Un diplomático francés que trabaja en la sede de la ONU en Nueva York desaparece inexplicablemente. Con el fin de hallar alguna pista sobre su paradero o sobre las misteriosas razones que pudieron obligarlo a abandonar la ciudad, los periodistas franceses Moreau (Jean-Pierre Melville) y Delmas (Pierre Grasset) se trasladan a Nueva York.

84'. Frantzia / Francia
**G:** Jean-Pierre Melville
**A/R:** Jean-Pierre Melville, Pierre Grasset, Christiane Eudes, Paula Dehelly, Ginger Hall, Colette Fleury, Jean Darcante, Michèle Bailly

### LE SAMOURAÏ (1967)

**Z/D: Jean-Pierre Melville**

Soldatapeko hiltzaile hermetiko eta hotz baten istorioa. Jeff Costello perfekzionistak kontu handiz aztertzen ditu bere hilketak, eta inoiz ez diote harrapatu. Gau batean, gaueko klub bateko jabea likidatu ondoren, hainbat lekukok ikusten dute.

La historia de un hermético y frío asesino a sueldo. Jeff Costello es un perfeccionista que siempre planea cuidadosamente sus asesinatos y al que nunca han atrapado. Una noche, tras liquidar al dueño de un club nocturno, queda a la vista de varios testigos.

105'. Frantzia / Francia
**G:** Jean-Pierre Melville
**A/R:** Alain Delon, Nathalie Delon, Caty Rosier, François Périer, Michel Boisrond, Jacques Leroy, Catherine Jourdan, Jean-Pierre Posier, Cathy Rosier, Robert Favart, Georges Casati, Jacques Léonard

Eta gainera, Mediatekan ere aurki dezakezu
Y además también puedes encontrar en la Mediateka:

**Le silence de la mer / El silencio del mar (1946), L' Aîné des Ferchaux / El guardaespaldas (1963), Le deuxième souffle / Hasta el último aliento (1966), Un flic / Crónica negra (1972)**

## BIBLIOGRAFIA / BIBLIOGRAFÍA




**Carlos Aguilar**

### JEAN-PIERRE MELVILLE

Cátedra / Colección Signo e imagen. Cineastas / 2016

Carlos Aguilarrek saiakera baten bidez xehatzen du kasu harrigarri hori, kronika historiko-biografikoa eta balioespen estetikoa batuz. Orobat, arreta berezia ipintzen dio Melvilleren habitat izan zen testuinguru industrial eta artistikoari, bereziki zinema polar deituriko thriller frantsesarekin loturik.

---

Carlos Aguilar desglosa tan extraordinario caso mediante un ensayo que funde la crónica histórico-biográfica con la valoración estética, incidiendo en el contexto industrial y artístico donde se desenvolvió Melville, en especial lo referido al “Thriller” francés, denominado “Polar”.




**José Francisco Montero**

### JEAN-PIERRE MELVILLE. CRÓNICAS DE UN SAMURAI

Shangrila Textos Aparte / Colección Trayectos / 2014

Jean-Pierre Melvilleri gaztelaniaz eskainiriko lehenbiziko monografia. Argitalpen honetan, errepasatzen da zinemagile frantsesak zer inguruabar historiko eta industrialetan gauzatu zuen obra.

---

Primera monografía en español dedicada a Jean-Pierre Melville. En él se repasan las circunstancias históricas e industriales en que realizó su obra, se tratan las particularidades de cada uno de sus filmes y la aportación de cada una de ellos a la evolución de su obra.




**Albert Galera**

### JEAN-PIERRE MELVILLE. SOMBRAS Y SILENCIOS

Ediciones Rosetta / 2017

2017an ehun urte bete ziren Jean-Pierre Melville jaio zela (1917-1973), eta urte horretan bertan egin zituen 50 urte haren film adierazgarrientzat jotzen denak: El silencio de un hombre (Le Samouraï, 1967). Monografia honen argitalpenarekin ekarri ziren gogora bi efemeride garrantzitsu horiek, zinemagile frantsesari omenaldia egitea xede gisa harturik.

---

En 2017 se cumplió el centenario del nacimiento de Jean-Pierre Melville (1917-1973) y se conmemoró también el quincuagésimo aniversario de la realización de la que se puede considerar su película más emblemática: El silencio de un hombre (Le samouraï, 1967). Dos efemérides trascendentales, que se celebraron con la publicación de esta monografía cuyo principal propósito es rendir homenaje al maestro galo.

## LABURDURAK

**A/R:** Aktoreak
**Ar/F**: Argazkia
**G:** Gidoia
**M:** Musika
**Z/D:** Zuzendaritza

## ABREVIATURAS

**A/R:** Reparto
**Ar/F**: Fotografía
**G:** Guión
**M:** Música
**Z/D:** Dirección

## SARRERAK

**5€ [4€ Az Txartelarekin]**

Zinemako txarteldegian eta golem.es

## ENTRADAS

**5€ [4€ Con Tarjeta Az]**

Taquillas del cine y golem.es

## INFORMAZIO ERABILGARRIA

- Film guztiak jatorrizko bertsioan proiektatuko dira (JB, Gaztelania).
- **Filma proiektatu baino 15 minutu lehenago irekiko dugu aretoa. Gomendatzen dizugu minutu batzuk lehenago etortzea, filma hasi ondoren ezin baita aretoan sartu.**
- Zinematekako programazioan azken orduko aldaketak egon daitezke. Ezinbestekoa bada, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok beretzat gordetzen du eskubidea programatutako jarduerak bertan behera uzteko, aldatzeko edo atzeratzeko, aldez aurretik azkunazentroa.eus-en jakinarazita.
- Programa hau etxera eramatea gomendatzen dizugu.

## INFORMACIÓN ÚTIL

- Todas las proyecciones son en versión original (VO, Castellano).
- **Abrimos la sala 15 minutos antes de la proyección de la película. Te recomendamos que acudas con unos minutos de antelación porque, una vez empezada la película, no se puede acceder a la sala.**
- La programación de Zinemateka está sujeta a cambios de última hora. En caso de fuerza mayor, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao se reserva el derecho a cancelar, modificar o aplazar las actividades programadas, previa comunicación pública en azkunazentroa.eus
- Te recomendamos que te lleves a casa este programa.

LG-DL: BI-129-2016

# AZKUNA ZENTROA, ZINEMAREN ETA IKUS-ENTZUNEZKOAREN LEKUA BILBON

# AZKUNA ZENTROA, EL LUGAR DEL CINE Y EL AUDIOVISUAL EN BILBAO

**Zinemateka**

**Tractora Koop. E.: Kinu**
Kolektibo Egoilarrak Azkuna Zentroan programa / Programa de Colectivos Residentes en Azkuna Zentroa

**Zinemaldia**

**Zinegoak**
Bilboko Nazioarteko Gaylesbotrans Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdia / Festival Internacional de Cine y Artes Escénicas Gaylesbotrans de Bilbao

**FANT**
Bilboko Zinemaldi Fantastikoa / Festival de Cine Fantástico de Bilbao

**Zinemagileen artean**
Emakumeek egindako zinemaren karabana / Caravana de Cine realizado por Mujeres

**Laida Lertxundi (Artista Az - kidea / Artista Asociada a Az )**
8 Topaketa / 8 Encuentros

**Film Sozialak**
Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdia / Festival Internacional de Cine Invisible

**Zinemakumeak gara!**
Emakumeek zuzendutako zinema-erakustaldia / Muestra de cine dirigido por mujeres

**Zinebi**
Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdiak / Festival Internacional de Cine Documental y Cortometraje de Bilbao

## Cines Golem Alhóndiga Zinemak

Informazio gehiago: **zinemAZ. Azkuna Zentroko zinema baliabide gida**. Eskatu Az Infon edo azkunazentroa.eus-en deskargatu

Más información: **zinemAZ. Guía de recursos de cine de Azkuna Zentroa**. Pídela en Az Info o descárgala en azkunazentroa.eus

gizartea eta kultura garaikidea
sociedad y cultura contemporánea

AZKUNA ZENTROA ALHÓNDIGA BILBAO

Azkuna Zentroak zorrotz betetzen ditu osasun-agintariek COVID-19aren aurrean ezarritako jarraibide guztiak. Zentroko jarduerak berariazko protokoloak, edukiera egokituak eta ibilbide seguruak kontuan hartuta egiten dira, eta plangintza berezia garatu da espazioak egunero eta behin eta berriz garbitzeko eta desinfektatzeko. Gainera, zentroko langileek berariazko prestakuntza- eta kontzientziazio-plana bete dute COVID-19aren prebentzioari dagokionez, eta, horren bidez, Azkuna Zentroak indartu dezake ezarritako osasun-neurrien betetze-maila.

Azkuna Zentroa cumple con todas las pautas establecidas por las autoridades sanitarias frente a la COVID – 19. La actividad del Centro se desarrolla teniendo en cuenta los protocolos específicos, con aforos adaptados y recorridos seguros; y se ha desarrollado una planificación específica de limpieza y desinfección diaria y repetida de los diferentes espacios. Además, el personal del Centro ha seguido un plan de formación y concienciación específico en prevención de la COVID-19, que permite a Azkuna Zentroa reforzar el cumplimiento de las medidas sanitarias implantadas.

## GOGOAN IZAN / RECUERDA



Zure maskara erabili

Usa tu mascarilla



Segurtasun distantzia mantendu

Mantén la distancia de seguridad



Sartu baino lehen eta irteterakoan

Antes y después de entrar



Besaulkiak esleitzen ditugu, segurtasun-tartea bermatzeko

Asignamos butacas para garantizar la distancia de seguridad



Erosi sarrerak online edo ordaindu txartelarekin

Compra las entradas online o paga con tarjeta



Erabili bakarrik beharrezkoa bada eta adierazitako edukiera errespetatuz

Usar solo si es necesario y respetando el aforo indicado

**azkunazentroa.eus**

**info@azkunazentroa.eus**

**944 014 014**

**PLAZA ARRIKIBAR, 4**
**48010 BILBAO**

Gure programazioari buruzko informazioa jaso nahi baduzu, jar zaitez harremanetan Azkuna Zentroarekin:
Si quieres recibir información de nuestra programación comunícate con Azkuna Zentroa:

Bilbao

gizartea eta kultura garaikidea
sociedad y cultura contemporánea

azkunazentroa.eus

AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO